Si no se formularan reclamaciones, este Expediente así aprobado se considerará definitivo y cumplido el trámite de publicación del resumen del mismo.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 15,15 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2022ko urriaren 26ko 13:00etan, Erroibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, lehen deialdian. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Teresa Bidaurreta Azkarate, Miren Nekane Nuño Iturri, Ainara Ekisoain Erro eta Leire Remiro Esnoz zinegotziak, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Juan Luis Fermin Gil Garcia zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du. Gai zerrendari ekin baino lehen Haize Morea Taldeko Remiro zinegotziak, EH-Bildu taldeko Nuño zinegotziak eta ETI taldeko Garralda alkateak bilkura grabatuko dutela jakinarazi dute.

### **1.- ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA, HALA BADAGOKIO, ERROIBARKO TRAFIKOA ARAUTZEKO ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTZEA**

Garralda alkateak hartu du hitza, eta, garaiz eta behar bezala aurkeztutako alegazioak aztertzeke eta idazkariak idatzitako txostena aztertu ondoren, horiek ebatzi behar dira bilkuran. Alegazioak irakurri, bakoitza bozkatu eta dagokion erabakia hartuko da.

Nuño zinegotziak dio gauza bat dela alegazio bakoitza ebaztea eta bozkatzea eta beste bat ordenantza bere horretan onartzea.

Remiro zinegotziak hartu du hitza, eta alegazioen bozketari dagokionez, abstenitu egingo dela adierazi du; izan ere, txostenak batzordean erabakitakoa jasotzen duen arren, eta horien ebazpenean laguntzeko batzordean parte hartzen duela alde batera utzita, ordenantzaren aurka bozkatuko du, eta horregatik abstentzioa da bere jarrera.

**LEHENA:- MILAGROS SARAGÜETA** 1.1.- 2.1. artikulua. Erroibarko Udalarik dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan aparkatzea antolatzea, nahiz eta bide horiek jabetza pribatukoak izan. Honakoa adierazten da:

Udalak ez du bere nahierara erabakitzen jabetza pribatu bat erabilera publikokoa izatea. Ibarreko hirigintza-plangintzan jasota dago jabetza pribatuetan erabilera publikoko bideak daudela. Beraz, plangintzan jabetza pribatuetan erabilera publikoko biderik agertzen ez bada, Udalak ezin du ezer antolatu edo arautu.

Erroibarko egungo plangintzan jabetza pribatuetan erabilera publikoko biderik ez dagoenez eta artikulua honek nahasmena baino sortzen ez duela dirudenez, ordenantzatik kentzea erabaki da.

1.2.- 2.3. artikulua. *Gelditzea da ibilgailua 2 minutuz baino gutxiagoz ibilgetzea, jendea hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko.*

Honakoa adierazten da:

Egindako alegazioa onartu da eta 2.3. artikuluan, “bi minutuz baino gutxiagoz” dioen ondoren honakoa gehituko da **eta gidariak ezinen du ibilgailua utzi.**



1.3.- Hirugarren alegazioari dagokionez, alegazio egilearen jabetzako lurzatiari buruzkoa, honakoa jakinarazten da:

Udalak ez du erabilera publikoko lurzati pribatuak antolatuko baldin eta Planeamenduan horrela jasota ez badaude. 1.1 alegazioan emandako erantzunari lotzen da.

1.4. Ibilgailuak gelditzea eta/edo aparkatzeari buruzko laugarren alegazioari dagokionez.

1.2 alegazioan eta Ordenantzaren 2. artikuluko horretako gainerako baldintzetan (2,3, 2.4, 2.7 eta 2.8 artikulua) emandako erantzun bera.

1.5. Xedapen gehigarriari dagokionez: *Alkateak aldetak egiten ahalko ditu, aurretik dagozkion txosten teknikoak eginez eta Udalbatzari horren berri emanez, ordenantza honetan ezarritako edozein bidetarako, eta aparkaleku-plaza berriak ezartzen ahalko ditu, ordenantzak aldatzeko behar diren izapideak egin beharrik gabe.*

Honakoa adierazten da:

Lehenik eta behin, adierazi behar da xedapen gehigarrian alkateari ez zaiola inoiz ematen plazak lortzeko ahalmena, ez berarentzat, ez gainerako bizilagunentzat, eta are gutxiago lurzoru pribatuan. Bigarrenik, azaldu den bezala, alkateak eta udalak ezin dute lurzoru publikoa ez den edo plangintzan jasota ez dagoen ezer agindu edo arautu. Ez da alegazioa onartu.

Aldeko bost botoz eta abstentzio batez (Remiro and.) bilkuran bildutako txostena onartu da eta alegazio-egileari hitzez hitz helaraziko zaio.

## **BIGARRENA.- ISIDORO GARCIA ERRO**

Alegatzen da erabilera publikoko espazio pribatuetan lehentasuna ematea lursailaren jabeei. 2.1. artikuluan jaso.

Honakoa adierazten da:

Udalak ordenantzatik kenduko du 2.1. artikulua eta ez du arautuko plangintzan erabilera publikoko lurzoru pribatuaren figura jasotzen ez den bitartean. Beraz, ez da onartu egindako alegazioa.

Aldeko bost botoz eta abstentzio batez (Remiro and.) bilkuran bildutako txostena onartu da eta alegazio-egileari hitzez hitz helaraziko zaio.

## **HIRUGARRENA.- CELESTINO ZUBIRI VIDAURRETA**

Bigarren alegazioaren erantzun berbera.

Alegatzen da erabilera publikoko espazio pribatuetan lehentasuna ematea lursailaren jabeei. 2.1. artikuluan jasoa.

Honakoa adierazten da:

Udalak ordenantzatik kenduko du 2.1. artikulua eta ez du arautuko plangintzan erabilera publikoko lurzoru pribatuaren figura jasotzen ez den bitartean. Beraz, ez da onartu egindako alegazioa.

Aldeko bost botoz eta abstentzio batez (Remiro and.) bilkuran bildutako txostena onartu da eta alegazio-egileari hitzez hitz helaraziko zaio.

**LAUGARRENA.- AURORA VILLANUEVA MARTINEZ** Ordenantzaren aplikazio-eremua zehaztugabea dela alegatzen da, ez baitira zehazten udaleko hirigintza-araudian jasotako bide motak, eta ez baitira mugatzen erabilera bereziak ibilgailuen zirkulazioari eta aparkatzeari dagokienez. Men berezia egin zaio behin eta berriz aipatutako 2.1 artikuluari.

Honakoa adierazten da:

Aplikazio eremua 1. Artikuluan dago zehaztua: *Ordenantza honen xedea da aparkatzea arautzea Erroibarko udal-mugarrean.*

Erroibarko udalerria, udalerrri osoa, landatarra edo hirikoa izan, eta hirigintza-figurak, alegazio-egileak aipatzen duen bezala, udaleko hirigintza-araudian jasotzen dira, eta, beraz, ez da beharrezkoa ordenantzan berariaz jasota egotea.

2.1 artikuluari dagokionez, aurreko alegazioetan erantzun den bezala, horrek sortu duen nahasmenduaren ondorioz, Udalbatzak kentzea erabaki du, 1.1 alegazioari emandako erantzunean jasotako arrazoiak direla eta. Beraz, ezetsi egin da egindako alegazioa.

Aldeko bost botoz eta abstentzio batez (Remiro and.) bilkuran bildutako txostena onartu da eta alegazio-egileari hitzez hitz helaraziko zaio.

**BOSGARRENA.- DAVID NICOLAS AGUILELLA**

5.1.- 2.1. artikulua. *Erroibarko Udalari dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan aparkatzea antolatzea, nahiz eta bide horiek jabetza pribatukoak izan.*

1.1 alegazioan emandako erantzunari lotzen da.

2.1. artikulua kenduko da.

5.2.- 3. artikuluari dagokionez, debekuak, eta zehazki 3.a) artikulua *Autokarabanak aparkatu Erroibarko herrigune guztietan, Erroibarko IGZ zerga ordaintzen dutenak izan ezik. Alegazio-egilearen ustez, diskriminatzailea da, Barne Ministerioaren 08/V-74 Instrukzioaren 3.1 paragrafoak jasotzen duenaren arabera.*

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da. Udalak erabiltzaile jakin batzuen aparkalekua arautuko du, behar bezala arrazoitutako eta oinarritutako arrazoi objektiboei jarraiki. Eta, ahal duen neurrian eta dagoen espazioaren arabera, autokarabanentzako aparkalekuak prestatuko ditu, horiek erabiltzea gomendatuz.

5.3.-3. artikuluari dagokionez, debekuak, eta zehazki 3.b) *Etxe eta etxabeetako ateen parean, eta finka partikularretarako sarbideetan. Alegazio-egileak azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren 91.2c) artikulua aipatzen du: Leku arriskutsuetan gelditzea edo aparkatzea edo zirkulazioa larriki oztopatzea izango dira zirkulaziorako arriskua edo eragozpena dakartenak, honako kasu hauetan: Behar bezala seinaleztatutako pasabide batean pertsona edo animaliak edo ibilgailuak higiezin batera irteteko edo hara sartzeko ohiko erabilera oztopatzen denean.*

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da eta 3.b) artikulua aldatu da, honakoa jasoz:

*Debekatuta dago etxeen, etxabeen edo finka partikularren aurrean gelditzea edo aparkatzea, baldin eta oztopatzen bada pertsonak, animaliak edo behar bezala seinaleztatutako ibilgailuak higiezin bateko irteera-pasabidearen edo sarbidearen erabilera normala.*

Nuño zinegotzi andreak hartu du hitza, eta zalantza dute erantzunaren inguruan, ez baitute ulertzen seinaleztapenak zeri egiten dion men, ibilgailuei edo zeri buruz ari den. Idazkariak hartu du hitza, eta erantzun du alegazio hori aztertu zenean, edo berak behintzat horrela ulertu zuen, alegazioak proposatzen zuena baiestea erabaki zela, baina pasabideena kentzea, bestela arautu egin beharko genituzkeelako, zinegotziek erantzun dutenez. Nuñok eta Ekisoainek, pasabidearena kentzen bada, legeak jasotzen duena, ez du zentzu handirik, zeren nola debekatuko da norbaitek etxe baten ate aurrean aparkatzea, pasabidea ez badago? Arautuz baino ezin da debekatu, baina ordenantzan geratzen den bezala, hori ez da arautzen, eta seinaleztatzeaz hitz egiten denean, zer seinaleztatzen da? etxea, geltokia, atea? Oso ambigua da, eta, ziurrenik, puntu gatazkatsuena da, eta horregatik ematen du gobernu-taldeak ordenantza hau onartu nahi duela. Alkateak erantzun du seinaleztatu

ahal dela ezin dela atarien aurrean aparkatu ez badago sartzeko toki nahikorik. Idazkariak eta zinegotziek diote pasabiderik ez badago, hori konpontzea oso zaila dela, ezin baita eskariaren arabera arautu, baina, nolana ere, pasabiderik ez badago, nolabait seinaleztatu egin behar dela debekatu nahi bada. Nuño zinegotzi andreak, emandako erantzunari dagokionez, hasierako galderan azpimarratu du zer esan nahi duen ibilgailuak edo lekuak behar bezala seinaleztatuta daudela esatea, ez baitago argi, eta uste du ez dagoela ongi adierazita, eta, nolana ere, leku horiek behar bezala seinaleztatuta daudenean jarri beharko lituzkeela. Bere taldea abstenitu egingo da ordenantza honen inguruan, bere ustez ez delako prozesu egoki bat jarraitu eta, gainera, uste duelako dauden baino arazo gehiago emango dituela, nahiz eta ez dakiten oso ondo zeintzuk diren, ez direlako espresuki esan, eta ez zaielako inoiz jakinarazi ordenantza honen premia eta beharra, kontzejuren batek horren inguruan esan duen zerbait sumatuta, baina besterik ez. Udalak, kontzejuekin eta mundu guztiaren adostasunarekin, auzokide bakoitzarentzat seinaleztapen hori jartzeko bi leku ezartzeko aukera bururatu zaio, emakida moduko bat, baina kobratu gabe.

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du honakoa jartzea erantzunean: *Debekatuta dago etxeen, etxabeen edo finka partikularren aurrean gelditzea edo aparkatzea, baldin eta oztopatzen bada pertsonak, animaliak edo ibilgailuak higiezin bateko irteera-pasabidearen edo sarbidearen erabilera normala "leku horiek behar bezala seinaleztatuta daudenean"*, eta ikusiko da horrek guztiak arazorik dakarren, baina behintzat hasteko zerbait izanen dugu eta geroago arazoak sortzen diren ikusiko da.

Remiro zinegotziak dio ez zaiola egokia iruditzen ordenantza bat martxan jartzea landu gabe eta ziurtasunik gabe.

Nuño zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du bere taldea ez dagoela ados alegazioari emandako erantzunarekin, ezta erantzuna aldatuta eta *"leku horiek behar bezala seinaleztatuta daudenean"* gehituta ere. Gobernu-taldea, berriz, ados dago aldaketa horrekin.

Remiro zinegotziaren aldeko bost botorekin eta abstentzio batekin, bilkura honetan jasotako txostena onartzea erabaki da, 5.3 alegazioari emandako erantzuna izan ezik. Alegazio hori aldatu eta zuzendu ondoren, aldeko hiru botorekin onartu da (Bidaurreta, Eciolaza eta Garralda), aurkako bi botorekin (Nuño eta Ekisoain) eta abstentzio bat (Remiro andrea), alegazio-egileari hitzez hitz helaraziz.

**SEIGARRENA.- LEIRE REMIRO ESNOZ**

6.1. Aplikazio eremua 1. Artikulua: *Ordenantza honen xedea da aparkatzea arautzea Erroibarko udal-mugarrean*. Alegazio egileak dio ez dela zehazten eragin eremua hiri-lurzorua besterik ez den edo beste zoru mota batzuk ere sartzen diren.

Honakoa adierazten da:

Ordenantzak jasotzen du jarduketa-eremua Erroibarko dermioa dela, beraz, zehazten ez bada, eremu hori udalerrri **osoa** delako da.

6.2. 2.5 artikuluari dagokionez. *Hiriarteko autobusak gelditzen ahalko dira, bakar-bakarrik, bidaiariak hartzeko eta uzteko, berariaz baimendutako eta seinaleztatutako geralekuetan*. Alegazio egileak dio Ibarrean ez dagoela baimendutako eta seinaleztatutako geltokirik.

Honakoa adierazten da:

Ordenantzak geltokiak arautu eta seinaleztatzea ahalbidetuko du.

6.3. 2.8 artikuluari dagokionez. *Oro har, ilaran aparkatuko da beti*. Alegazio egileak dio, Erroibarko herrien ezaugarriak kontuan hartuta, ezinezkoa dela hori aplikatzea.

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da eta 8. Artikulua bigarren paragrafoa aldatu da, lehenengo esaldia kenduz, eta honela idatziko da: *Zoladuran seinaleak dituzten aparkalekuetan, ibilgailuak markatutako perimetroaren barruan jarriko dira*.

6.4.- 3. artikuluari dagokionez, debekuak, eta zehazki 3.a) artikulua *Autokarabanak aparkatu Erroibarko herrigune guztietan, Erroibarko IGZ zerga ordaintzen dutenak izan ezik*.

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da eta 5.2 alegazioan emandako erantzunari lotzen da.

6.5.- Artikulu honi dagokionez: 4. salbuespenezko araubidea. *Baimentzen da honako hauek aparkatzea horretarako gaitutako eremuetan*. Alegazio-egileak adierazi du ibarrean ez dagoela leku espezifikorik seinaleztatuta.

Honakoa adierazten da:

Ordenantzak leku horiek prestatzea eta seinaleztatzea ahalbidetuko du, teknikarien laguntzaz.

6.6.- 7. Artikulua. Arau-haustea. Eta zehazki 7.3. artikulua. *Etxebizitzetarako, etxabeetarako, finka partikularretarako eta gainerako jabetza pribatuetarako*

*sarbidea oztopatzea*. Alegazio-egilearen ustez, zaila da aplikatzea, sarbide horiek ez baitaude ondo identifikatuta.

Alegazio hau 5.3. alegazioaren oso antzekoa denez, 5.3. alegazioari emandako erantzun bera emanen zaio.

Honakoa adierazten da: Alegazioa onartu da eta 5.3. alegazioan emandako erantzunari lotzen da.

6.7.- 7. Artikulua. Arau-haustea. Eta zehazki 7.5. artikulua. *Hirigunearen barruan kanpatzea edo gaua ematea, 3.c) Hirigunean ibilgailuen barruan kanpatzea* Alegazio-egilearen ustez, bi artikuluek koordinatuta egon beharko lukete, kontzeptu berari erreferentzia eginez.

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da eta kendu egiten da 7.5. artikulutik gaua igaro hitza, eta bi artikuluetan kanpatzeko terminoa baino ez da geratzen.

6.8. “Xedapen gehigarria” *Alkateak aldaketak egiten ahalko ditu, aurretik dagozkion txosten teknikoak eginez eta Udalbatzari horren berri emanez, ordenantza honetan ezarritako edozein bidetarako, eta aparkaleku-plaza berriak ezartzen ahalko ditu, ordenantzak aldatzeko behar diren izapideak egin beharrik gabe.* Alegazio egilearen ustez kontzejuen hartu-emana eta adostasuna kontuan hartu behar direla.

Honakoa adierazten da:

Alegazioa onartu da eta xedapen gehigarria aldatu da honakoa erantsiz: *Alkateak aldaketak egiten ahalko ditu, aurretik dagozkion txosten teknikoak eginez, **kontzejuekin kontsultatu eta adostuz** eta Udalbatzari berri emanez, ordenantza honetan ezarritako edozein bidetarako, eta aparkaleku-plaza berriak ezartzen ahalko ditu, ordenantzak aldatzeko behar diren izapideak egin beharrik gabe.*

Aldeko bost botorekin eta Remiro zinegotziaren abstentzio batekin, bilkura honetan jasotako txostena onartzea erabaki da, 6.6. alegazioari emandako erantzuna izan ezik, 5.3. alegazioari emandako bera baita, eta hori aldeko hiru botorekin (Bidaurreta, Eciolaza eta Garralda), aurkako bi botorekin (Nuño eta Ekisoain) eta abstentzio batekin (Remiro andrea) onartu egin da, alegazio-egileari hitzez hitz helaraziz.

Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza, eta jakinarazi du ez dagoela ongi idatzita lehenengo puntua, ordenantza ez baita Erroibarko trafikoa arautzen duen ordenantza bat, baizik eta Erroibarko aparkalekuak arautzen dituen

ordenantza bat. Horrela etorri behar du ordenantza onartzeko edo ez onartzeko erabakian, eta bertaratutako guztiek arrazoia eman diote.

Alegazioei erantzun ondoren, Erroibarko aparkalekuak arautzen dituen Ordenantza behin betiko onartzeko bozketa egin da. Hona emaitza:

Bidaurreta, Eciolaza eta Garralda jaun-andreen aldeko hiru botoarekin, Nuño eta Ekisoain andreen bi abstentziorekin eta Remiro andrearen aurkako botoarekin, Erroibarren aparkatzea arautzen duen Ordenantza behin betiko onartzea erabaki da.

Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza, eta botoa zergatik eman duen adierazi du. Jarraian, osorik transkribatzen den testua irakurri du:

*“HAIZE MOREAREN BOZKETA ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENARI dagokionez” Haize Moreak Ordenantza honen aurka bozkatuko du. Gaur, Alkateak eta bere Gobernu Taldeak osoko bilkura honetara ekarri dute behin betiko onartzeko.*

*Gure kontrako botoaren arrazoia ordenantza hau nola egin den da, udalbatzaren lan-saio bakar batean ere ez baita sakonki aztertu (ez da udal batzorderik deitu horretarako). Kontrako botoa emateko arrazoitzat, udal gobernu taldeak Ordenantza honen onarpena tramitatzeko izan dituen presak eta urgentziak gehitzen ditut. Ordenantza hau beharrezkoa dela ez dugu ukatzen, baina askoz denbora gehiago behar da hausnartzeko eta lantzeko.*

*Gaur 2022ko urriak 26 ditu.*

- Aurtengo maiatzaren 2an, duela 6 hilabete baino gutxiago, udalbatzak lehenengo zirriborroa jaso zuen.*
- Ekainaren 9an bilera egin zen kontzejuekin zirriborroa aztertu eta oharpenak egiteko.*
- Uztailaren 21ean beste bilera bat egin zen kontzejuekin, eta bertan bigarren zirriborro bat aurkeztu zen, lehenengoaren guztiz desberdina; izan ere, ekaineko bileran jasotako ekarpen eta oharren ondoren, alkateak eta bere gobernu-taldeak uste zuten lehen zirriborro horrek ez zuela balio.*
- Uztailaren 21eko bilera hori 3 egun lehenago baino ez zen deitu, eta zirriborro berria uztailaren 21eko 9:00etan bidali zen (beraz, bertaratutako pertsona askorentzat, bileran bertan zirriborro horren lehen irakurketa egin zen).*
- Uztailaren 29an, eta udaleko lan-batzorderik egin gabe, alkateak Ordenantza horren hasierako onarpena proposatu du Ohiz Kanpoko Bilkurako gai-zerrendan.*

*- 3., ERROIBARREN APARKATZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA*

- Ondoren, aldeko lau botoz (Gil, Bidaurreta, Eciolaza eta Garralda), bi abstentziaz (Nuño eta Ekisoain) eta aurkako boto batez (Remiro), honakoa erabaki da: -1.- Erroibarren aparkatzea arautzen duen ordenantzari hasierako onespena ematea. Ordenantza hori behin betiko onartzen bada, NAOn argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean sartuko da indarrean. Hasierako onespena NAOn eta iragarki-oholean argitaratzea, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea emanez, eta, halakorik ezean, behin betiko onarpena argitaratuko da.

- Bilkura horretan, aktan jasota ez dagoen arren, ordenantza horri buruzko lan-batzorde bat deitzeko beharrari buruz hitz egin zen, hasierako tramitazioa gorabehera: oposizioak hala eskatu zuen, bai Haize Moreak, bai Eh-Bilduk.

- HAIZE MOREAK aurka bozkatu zuen. (Bilkuran esan nuen batzordean landu gabeko ordenantza bat osoko bilkurara ekartzeko presarekin eta moduarekin bat ez nentorrela, nahiz eta horrelakorik ez agertu; ez nuen eskatu nire botoaren argudioa aktan jasotzeko).

- EH-Bildu abstenitu egin zen, ordenantza lantzea beharrezkoa zelakoan, baina hori ere ez da bilkuraren aktan agertzen.

- Abuztuaren 16an hasiera onespena argitaratu zen NAOn.

- Urriaren 14an Udal Batzordea egin zen jasotako alegazioak ebazteko.

- Eta gaur, urriak 26, EZOHIKO BILKURAN, alkateak gai hau gaurko Gai-zerrendara ekarri du behin betiko onartzeko, bigarren zirriborroa aurkeztu eta 3 hilabetera eta testua udal lantalde bakar batetik ere pasatu gabe.

Prozesuaren deskribapen hori guztia aktan jasotzea eskatzen dut, herritarrek jakin dezaten gauza batzuk "azkar" izapidetzen direla udal honetan.

Eta hasieran esan bezala eta azaldutakoa kontuan hartuta:

Ordenantza honen aurka bozkatuko dugu, konpondu baino arazo gehiago ekarriko duela uste dugulako.

Ordenantza honen aurka bozkatu genuen, izan ere, lehen adierazi dudan bezala, uste dugulako ERROIBARREN APARKATZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA bat, lehenengoa izanik, aurrekaririk gabea eta gure ibarraren ezaugarri espezifikokoak kontuan hartuta, kontzejuz osatutako udalerria izanik, LAN DENBORA GEHIAGO, GOGOETA DENBORA GEHIAGO, DENBORA GEHIAGO BEHAR DELA ORDENANTZA IDAZTEKO.

Alkateak hartu du hitza, eta erantzun du bilerak egin direla kontzejuekin, eta batzorde batera ezin izan zela joan Remiro zinegotzia, whatsapppe jasota dagoen bezala. Remiro andreak erantzun du ez dela lan-batzorderik deitu ordenantza honetarako. Alkateari eskatu dio mezua bilatzeko, eta alkateak erantzun dio bilatuko duela. Nolanahi ere, Remiro zinegotziak ez du esan joan



den ala ez, baizik eta aipatu ordenantzari buruz lan egiteko bilerarik deitu den, ez baita bilerarik egin. Alkateak berriro dio ez zela batzorderik egin Remiro zinegotziak ezin zuela esan baitzuen, eta Nuño, Ekisoain eta Remiro zinegotziek ezetz diote.

Nuño zinegotzi andreak esan du ordenantza honetan, banatu diren zirriborroez gain, ez dela ezertara huts egin, edo bata edo bestea beti oposizioa bertaratu dela eta are gehiago eskatu dutela, alkateak emandako azalpenak zorte txarrekozat jotz. Eta, Remiro zinegotzi andreak ordenantza honekin egindako prozesu osoa idazteko lana egin duenez, berak esandako guztiari babesa adierazi nahi diote. Eta botoa abstentzioa izan bada ere, beste batzuetan hala argudiatu dutelako eta ordenantza bat egon behar dela uste dutelako, uste dute hori ez dela egiteko modu egokia, askoz gehiago landu behar zela uste baitute, adibidez kultura eta kirolaren ordenantzarekin egin den moduan. Oposizioko taldeek gai honetarako deitu den guztian aktiboki eta positiboki parte hartu dutela jasota geratzea nahi du, eta ordenantza hau arautu eta garatzeko egutegi bat prestatzeko eskatu du, gobernu taldeak batzordean adierazi zuen konpromisoarekin bat etorritz.

## **2.- ERROIBARREN KULTURA- ETA KIROL-JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEARI EGINDAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA, HALA BADAGOKIO, HAREN BEHIN BETIKO ONESPENA**

Alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Elutseder elkarteak hiru alegazio aurkeztu dizkiola Erroibarko kultur eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari. Alegazio horiek, alde batetik, ordenantza bitan banatzea eskatzen dute, bat kultur jardueretarako eta bestea kirol jardueretarako, eta, bestetik, epeak aldatzea eskatzen dute, bai jarduerak aurkezteko epean, bai jarduerak justifikatzeko epean, ezarrita dauden bezala kirol jardueren dinamika nagusitzen delako, kultur jardueren kaltetan. Ordenantzan irailaren 30a ezartzen da eskabideak aurkezteko epe gisa, eta abenduan egitea proposatzen da, eta proiektuen justifikazioa aurkezteko epea urriaren 30ean ezarri da, hurrengo urteko urtarrilera pasatzea proposatuz. Hori guztia justifikatuta dago, izan ere, orain arte, Udalak ez ditu laguntzak ebazteko epeak % 80 bete, eta laguntzak gehienez ere hilabete batetik lau hilabetera ebatzi dira. Beraz, errealitatea hori izanik, epe berriak oso estuak direla iruditzen zaie, eskatzaileei zailtasun gehiago gehituz, eta gaitasun ekonomiko txikiagoa dutenentzako itogarriak izan ahal direlako. Eta, azkenik, egokitzen jotzen dute ikastaroak, ekitaldiak eta gainerakoak desgaitasuna duten pertsonentzat antolatzea, baina inkongruentzetan jotzen dute 5 punturekin barematzea, parte-hartzaile gehienek desgaitasun fisikoak dituztenean eta horretarako espazio egokirik ez dagoenean.

Bidaurreta eta Remiro zinegotziek hartu dute hitza. Jarduerak bi ordenantzatan banatzeari buruzko alegazioari dagokionez (bata kirolekoa eta bestea

kulturala), uste dute ez dela beharrezkoa, ordenantza bitan banatuta dagoelako.

Eskabideak aurkezteko eta justifikatzeko epeen data-aldaketari dagokionez, uste dute, administrazio mailan arazorik ez dagoenez, eskaera justifikatuta dagoela, kirolaren zatia irailean hasiko litzatekeelako eta urtarrilean amaituko litzatekeelako, eta kulturaren zatia abenduan hasi eta martxoan amaituko litzatekeelako. Kirolaren kasuan, azaroan ebaluatuko lirateke ebatziak izateko eskaerak, eta, kulturaren, azaroan hasiko lirateke eskaerak sartzen; beraz, kirolari dagokionez urtarrilean likidazioei eta hasierako ordainketei dagozkien ordainketak bakarrik egin beharko lirateke, eta kulturaren proiektuak ebaluatuko lirateke. Beraz, Elutsederren eskaera kontuan har daitekeela uste du, kirolaren datak dauden bezala utzita eta kulturarenak aldatuz, laguntzen eskaera abenduaren 31ra artekoa izan dadin eta emandako laguntzen justifikazioa hurrengo urteko urtarrilaren 31ra artekoa. Modu horretan, kultur jarduerak kirol jardueretatik bereizteak bi egutegi diferente egitea dakar.

Aipatzen duten 5 puntuko baremazioari dagokionez, baremazio hori kentzea proposatzen da, arrazoiak dutela iritzita, eta proiektuen puntuazioa aldatzea, eta, beraz, 45 puntu beharrean, 50 puntu ematea, eta gainerako puntuazioak berdin geratzea.

Berriz ere Remiro zinegotzi andreak hartu du hitza eta, ordenantza berrikusita, balioespenen bat egin nahi du. Xedapen orokorren puntuan, herritarrak gehitu beharko litzateke, entitate eta kolektiboek gain, eta, 4. artikuluan, aplikazio-eremua, lehen paragrafoan, gauza bera, erakundeak, kolektiboak eta herritarrak, eta garatu ordez sustatu jarri, eta guztiak ados daude horrekin.

Adierazi du, halaber, aktan jaso behar dela aurreko bilkuran egindako behin betiko onespina ez zela halakoa, baizik eta hasierako onespina zela, bestela bi bilkuratan jasoko litzatekeelako behin betiko onarpena, eta puntu hori argi utzi da bilkuran. Eta, ordenantza hau indarrean sartzen den egunari dagokionez, argi dago NAO-n argitaratu eta hurrengo egunean sartzen dela, baina dauden epeak kontuan hartuta, aurreko ordenantzaren xedapen indargabetzaile bat idatzi beharko litzateke, nahiz eta egungo araudiaren arabera aurkeztutako eskaerak araudi horren arabera ebatzi beharko diren, ordenantza berria indarrean sartu arte. Eta, bestetik, xedapen iragankor bat eranstea, eta, urte honetarako bakarrik, ordenantza berria jasotakoez bestelako aurkezpen-epe batzuk ezartzea.

Remiro zinegotzi andreak proiektuen idazkera nola doan galdetu du; izan ere, ordenantza garatu ahal izateko, beharrezkoa da kirol-klubekin hitzarmenak prest eta onartuta izatea. Idazkariak erantzun du prestatuko dituela

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

Lehenengo: ondoren idatzita dauden alegazioak ebatzea:

1go alegazioa. Bi ordenantza egitea, bat kultur jardueretarako eta beste bat kirol jardueretarako.

Alegazioa ezestea. Ordenantza badago bitan banatua.

## 2. alegazioa. Epeak aldatzea:

Alegazioa onartu da eta honako epeak ezarri dira:

### 7.1 KIROL JARDUERAK

Ikasturte berriko proiektua aurkezteko epea: IRAILAREN 30a.

Bukatutako ikasturtearen memoria aurkezteko epea: URRIAREN 30a

### 7.2 KULTUR JARDUERAK

Ikasturte berriko proiektua aurkezteko epea: ABENDUAREN 31

Bukatutako ikasturtearen memoria aurkezteko epea:  
URTARRILAREN 31

## 3. alegazioa. Baremoa aldatzea:

Alegazioa onartu da eta baremoa aldatzen da, desgaitasunen bat duten pertsonen parte-hartzea bultzatzen duten proiektuetarako puntuazioa kentzen da, eta 5 puntu horiek proiektuari gehitzen zaizkio, 45 puntutik 50 puntura pasatuz.

Bigarrena: Ordenantza behin betiko onestea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzea, bilkura honetan jaso eta onartutako aldaketa eta zuzenketekin, xedapen iragankorra eta xedapen indargabetzailea barne.

### **3.- FILOMENA ERAUNTSIAK KALTETUTAKO AZPIEGITUREN OBRAK ADJUDIKATZEA ETA HORIEN BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA: AURIZBERRI, ERRO-ZILBETI ETA ERROIBARKO UDALA ETA HITZARMENAK**

Garralda alkate jaunak jakinarazi du Filomena erauntsiaren ondorioz bideak konpontzeko egin beharreko lanak, jakinarazi zuen bezala, bi zatitan banatu zirela; lehenengo zatiak Lintzoaingo bide bati eragiten zion, eta, Lintzoaingo Kontzejuari emandako baso-jarduketetarako laguntzak aprobetxatuz, jarduketa horien ondoren egin behar zirela. Hori dela eta, alkatetzaren ebazpen bidez, Nivelaciones Pamplona enpresari esleitu zitzaion 20.532 euroko zenbatekoan (gehi BEZa). Aurizberri eta Orondritzeko ur-biltegietarako eta Zilbetirako bideen konponketari eragiten zion beste zatia Lakitari esleitzea proposatu du kontratazio-mahaiak, baldintza-agirian eskatutako baldintzak betetzen dituelako eta Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez aurkeztu den enpresa bakarra delako, 51.730,00 euro gehi BEZa ordainduta.

Barra erauntsiaren ondorioz egin beharreko obrei eta Estatuak obra horiek egiteko emandako dirulaguntzei dagokienez, egin beharreko hiru obren esleipena arautzen duten pleguak onartu behar dira: Aurizberriko bideen konponketa, Erro/Zilbetiko bideen konponketa eta Erroibarko Udalaren zenbait

konponketa. Lau dira, baina Esnozko bidea konpontzeko obrak 10.000 euro baino gutxiago direnez, zuzenean esleituko dira, alkate ebazpen bidez.

Pleguei dagokienez, idazkariak jakinarazi du guztiek klausula bat daramatela, eta klausula horrek beste batzuetan onartu diren antzeko beste batzuetatik bereizten dituela. Izan ere, obra guztiak, esleitu arren, finantzaketaren mende geratzen dira, eta, beraz, kontzeptu berberengatik Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuak deitu duen dirulaguntza osagarria ere lortzen ez bada, esleipena bertan behera geratuko da. Era berean, jakinarazi da kontzejuetako bideak konpontzeko aipatutako obrei dagokienez, Barra erauntsiak eta Filomena erauntsiak eragindakoei dagokienez, kontzejuen eskumena baita, bakoitzarekin hitzarmen bat sinatu dela, eta konpromisoa hartu dutela obraren ordainketa bere gain hartzeko, eta Udalak ez duela euro bakar bat ere aurreratu behar obrak egiteko. Puntu horiek bilkura berezi batean sartzeko premiari eta arrazoiari dagokionez, esleipena Estatuari jakinarazi behar zaiolako da, Nafarroako Gobernuaren bitartez, zeinak bitartekari gisa jarduten baitu, azaroaren 21a baino lehen, baina Nafarroako Gobernuak ez daki noiz ebatziko dituen laguntzak, eta horregatik jaso da baldintzen agirian aipatutako klausula, finantzaketa badagoela dioena.

Aho batez honakoa erabaki da:

1.- Filomena eraunsiaren ondorioz bideak konpontzeko lanen adjudikazioa berrestea.

2.- Barra eraunsiaren ondorioz Aurizberriko bideak konpontzeko, Erro-Zilbetiko bideak konpontzeko eta Erroibarko Udaleko zenbait konponketa egiteko lanak esleitzeko baldintza pleguak onartzea, guztiak ere finantzazioa egotearen baldintzapean.

#### **4.- DERRIGORREZKOA EZ DEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN GARRAIOA. AURREKONTU ALDAKETA ONESTEA.**

Garralda jaunak hartu du hitza eta Proiektu Estrategikoekin sinatu beharreko hitzarmena dela eta, esan du Udalak konpromisoa hartu duela derrigorrezkoa ez den irakaskuntzako ikasleen garraioaren kudeaketaz arduratzeko eta garraioaren kostua aurreratzeko, bidezkoa da aurrekontu-aldaketa bat onartzea, partida hori ez baitzegoen aurreikusita Udalaren 2022. urteko aurrekontuan.

Honako aurrekontuko aldaketa onartzea erabaki da aho batez:

#### **2022KO AURREKONTU OROKOR BAKARREKO APARTEKO KREDITUAK** **GAITZEKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA**

##### **AURREKONTUKO ALDAKETAK**

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 3269 2273000	BATXILLERRA/LH IKASLEEN GARRAIOA	16.450,00

<i>ALDAKETAK OSOTARA</i>	16.450,00
--------------------------	-----------

### FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
<b>1 4506000</b>	<b>PIRINIOKO PLANA DIRU-LAGUNTZA</b>	<b>16.450,00</b>

<i>FINANTZAZIO ITURRIAK</i>	16.450,00
-----------------------------	-----------

--	--

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasuneko 2/1995 Foru Legearen 212. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 15:15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.